



# **Berriro ere XVII. mendeko krisiaren inguruan: hurbilketa historiografiko bat.**

---

**GARTXOT FIDALGO**

**HISTORIAKO GRADUA**

**2019/2020 IKASTURTEA**

**IBAN ZALDUA**

**EKONOMIA HISTORIA ETA EKONOMIA ERAKUNDEAK**

**Laburpena:** XVII. mendeko krisiak azken hamarkadetan berrikusketa sakona jasan duen arren, urte askoan ikerketa ugariaren iturburu izan zen, Aro Berriko ikergaien sailean “super-star” bat izanik. XVII. mendea matxinada, izurrite eta heriotzaz betetako geruza ilun batez estaliko zuen ideia ordea, Bigarren Mundu Gerra osteko Britainia Handiko historiografia marxistaren baitan izan zen sortua. Feudalismoaren eta kapitalismoaren arteko trantsizioaren inguruko eztabaiden testuinguruan, XVII. mendeko krisia feudalismoaren oztopoak ezabatu eta kapitalismoaren hazkundeko oinarriak ezarri zituen alditzat ezaugarritu zen. 1950eko hamarkadaren amaieratik, Hobsbawmek gidatutako marxismo britainiarraren baitako irekiera akademikoaren harira, arestian irizpide ekonomikoetan ezaugarritako krisiari, XVII. mendearen erdialdeko matxinadei eskaintzen hasi zitzaizkien interesa. Nahiz eta Europa osoko erreboltak eta matxinadak joera orokorren barnean egituratzeko saiakerak gauzatu, eskualdeko ikerketek izaera soziopolitikoko “krisi orokorraren” izaera ezeztatu zuten, tokian tokiko desberdintasunak joera orokorrak baino nabarmenagoak suertatu baitziren.

1970eko hamarkadatik aurrera, XVII. mendeko “krisi orokorrak” adarkatze eta higidura prozesu sakon bat jasan zuen. Alde batetik, “krisi” nozioaren inguruko eztabaidek izendapenaren bilakaera linguistikoa eta erabilgarritasun analitikoa zehaztu zituzten. Beste aldetik, Aro Berriko izendapen analitiko ugariaren berrikuspenaren ildoan, XVII. mendeko krisiarekin hertsiki lotutako zenbait noziok garrantzia galdu zuten, krisia berarekiko ohiko kontakizunak kinka larrian lagaz.

XVII. mendeko krisiaren ertz ekonomikoak ordea, inoiz baino onarpen handiagoa lortu du azken hamarkadetan, jatorrizko gerraosteko irakurketa marxistatik urruti agertu den arren. Feudalismoaren eta kapitalismoaren arteko trantsizioaren momentu erabakigarria baino, azken hamarkadetan garaiaren izaera eraldatzailea azpimarratu da, Europa osoko errealitate ekonomikoen berregituraketa aldia izanik. Aldaketa horiei dagokienez ordea, jatorriz gakoa urruneko merkataritzan eta koloniekiko ekoizpenean kokatu izan arren, azken aldiaren tokian tokiko barne merkataritzaren eta landa inguruko harreman sozial berrien garapenaren garrantzia azpimarratu da. Horrela, oraindik ere “krisi” izendapenak duen erabilgarritasuna handia da historia ekonomikoaren sailean, XVII. mendeko gorabeherak aurreko eta ondorengo prozesuen artean egoki kokatzeko gai baita, betiere prozesuaren baitako jarraikortasun eta berrikuntza elementuak integratuz, eta ertz anitzeko kontakizun amankomun bat osatzea ahalbidetuz.

# AURKIBIDEA

---

1. Sarrera.....	4
orr.	
2. "XVII. mendeko krisi orokorraren nozioaren jatorria eta lehen eztabaida....	5-9
orr.	
3. Eztabaidaren joan etorrian: "krisi orokorra" eta erreboltak.....	9-13
orr.	
4. Eztabaidaren adarkatze eta higitze prozesuaren ildoan.....	13-17
orr.	
5. Krisiaren ertz ekonomikoaren nondik norakoak.....	17-23
orr.	
6. Azkenengo gogoetak.....	24-25
orr.	
Bibliografia.....	26-29 orr.

## 1. Sarrera.

“Pese a que durante mucho tiempo ha sido uno de los argumentos más controvertidos que ha tratado la reflexión historiográfica de la Edad Moderna, la crisis del siglo XVII es hoy un tema desgastado, irremediabilmente agotado y *demodé*”<sup>1</sup>.

XX. mendearen azkenetan Benigno ikerlariak XVII. mendeko krisiaren inguruko eztabaidaren egoera ezaugarritzeko hitz hauek erabiltzearen harira, urte askoan ikerketa ugariren iturburu izan da aipatutako krisiaren ideia, Aro Berriko ikergaien sailean “superstar”<sup>2</sup> bat izanik. Ildo horretan, XVII. mendeko “krisi orokorraren” ideiak mende ilun eta goibel baten irudia aurkeztu izan du, etengabeko epidemia, izurrite, gerra eta bestelakoez osaturiko irudi bat. Baina irudikapen horren ezaugarri esanguratsurik izan bada, hori errebolta eta matxinadena izan da. Jada garaikideak ohartu ziren bezala, mendearen erdialdeko errebolta eta iraultza olatuek Europa osoa errotik astinduko zuketeneko irudiak garrantzia handia izan du.

XVII. mendeko krisiaren nozioa beraz, ez da soilik ikergai zehatz baten inguruan antolatu, ezta izaera desberdineko arazoen argitzean ere, nozioa epealdi oso bateko gogoeta anitzen muinean kokatu da, epe luzeko beheraldi edota “tristura”<sup>3</sup> bat ezaugarrituz. Era honetan, XVII. mendeko krisiak, hein batean, XVI. menderako Errenazimenduak edota XVIII. menderako Ilustrazioak izandako funtzioa bete du; hots, mende bateko gai nagusi bilakatu da, epe osoari gorpuzkera eta izaera propio bat emanaz.

Horrela, lanaren lehen helburua XVII. mendeko krisiaren inguruko eztabaida historiografikoa ezaugarritzea izan da, norabide historiografiko desberdinak ikerketa historiko ororen erdigunean kokatzen baitira. Era berean, XVII. mendeko krisiaren eztabaida historiografikoaren ezaugarritzeaz gain, eztabaida horren arrakastaren zergatien inguruan sakondu da, eztabaidaren higitze prozesua jorratzearekin batera. Azkenik, krisiaren ertz ekonomikoa abiapuntu hartuz, nozioak gaur eguneko testuinguru historiografikoan izan ditzakeen aukera eta mugen inguruko deskribapen bat osatu da.

---

<sup>1</sup> F. Benigno, *Espejos de la revolución*, Bartzelona, Crítica, 2000, 47 orr.

<sup>2</sup> P. Fernández Albaladejo, “Veinticinco años de debate sobre la crisis del siglo XVII” in T. Aston, koord. *Crisis en Europa 1560-1660*, Madril, Alianza Editorial, 1983, 369 orr.

<sup>3</sup> “El XVII es un siglo triste capaz de definir científicamente una tristeza de larga duración”: R. Romano “Encore la crise de 1619-1622”, in *Annales ESC*, 19. alea, 1964, 37 orr.

## 2. “XVII. mendeko krisi orokorraren” nozioaren jatorria eta lehen eztabaida.

Errenazimendua eta Ilustrazioa ez bezala, XVII. mendeko krisia eraikuntza intelektual berria da, XX. mendearen bigarren erdialdean sortu, eta, nolabait, garaiko krisi nozioaren inguruko gogoeta sakon baten parte dena. Hala ere, denbora luzean zenbait herrialdetako historiografiek mende horrekiko irudi ezkor hori ukatu dute. Frantzia zehazki, Richelieu, Colbert eta Molière bezalako “Grand Siècle” delakoaren testuinguruan, ukatu egingo dute krisi politiko eta sozial sakona eta beheraldi ekonomikoa dituen epealdiaren irudia. Horren ondorioz, mendearen lehen erdialdea XVI. mendearekin azaltzen jarraitu dute, eta Hogei Hamar Urteko Gerra eta Fronda bilakatu dira mende loriatsuaren mugari<sup>4</sup>. Era berean, modernitatearen iturburuko mende bezala ere ulertu izan da, garaiko iraultza zientifikoaren eta kontzientzia krisi baten gakoan kokatu eta aipatutako irudi ezkorretik aldentuz<sup>5</sup>.

Horren ondorioz, eskuliburu frantsesek mendearen lehen erdialdeko krisia Europako hegemoniaren aldaketa gisa azaldu dute, espainiar domeinuaren beheraldia frantziar nagusitasunarekin uztartuz. Eskuliburu ingelesak adibidea oraindik eta esanguratsuagoa da: 1960ko hamarkadara arte ez zen planteamendu tradizionalen aurkako kontakizun berririk egonkortuko, eta mende horretako beheraldi eta borroka sozial kutsuaren lehen ñabardurak 1970eko hamarkadan agertuko ziren lehen aldiz<sup>6</sup>.

Krisiaren inguruko eztabaida historiografia komunista anglosaxoiaren baitan gauzatu zen lehenik, eta, eztabaida adar ideologiko desberdinen partetik oso baldintzatuta egon bazen ere, nabariak izan ziren plazaraturiko ekarpenak. Zentzu horretan, XVII. mendeko krisiaren zentzu zabal eta malguak, Europa mailako eztabaida bateratu baten eraketa ahalbidetu zuen<sup>7</sup>. Beraz, krisiaren inguruko gogoetak, herrialde askotariko momentu erabakigarriak azpimarratu ez ezik, eremu desberdinetako ikerlari anitzen arteko elkarlana sustatu zuen, antzina eremu nazionalera mugatutako ikerketa jarduna erabat zabalduz. Eta, ildo berean, herrialdeen arteko elkarlan horrek, historia konparatiboan oinarritutako ikuspegiak sustatu eta egonkortu zituen. Horregatik, irekiera horrek

---

<sup>4</sup> F. Benigno, op. cit. 48 orr.

<sup>5</sup> P. Hazard, *La crisis de la conciencia europea*, Madril, Alianza Editorial, 1988, 17-21 orr.

<sup>6</sup> F. Benigno, op. cit. 57 orr.

<sup>7</sup> J. Elliot, *España, Europa y el mundo de ultramar (1500-1800)*, Madril, Editorial Taurus, 2010, 88-91 orr.

abstrakzio eta erakartze zalantzarriak osatu bazituen ere, zenbait emaitza garrantzitsuren ernamuin ere izan zen.

Lehenengo aldiz XVII. mendeko “krisi orokorraren” ideia zuzenean Eric Hobsbawmek 1954an *Past and Present* aldizkarian argitaratutako bi artikuluetan agertu arren, izatez krisiaren inguruko eztabaida gerren arteko epealdian sortu zen, eta zalantzarik gabe, historiografia marxista britainiarraren sorreran bertan du jatorria. 1930eko hamarkadaren lehen erdialdean, Britainia Handian ez zen oraindik izaera marxistako historiografiarik. Lenin, Marx eta Engelsen zenbait idazlan salbu, soilik Bigarren Internazionalako protagonisten idatziak zeuden eskuragarri. Langile mugimenduaren eta alderdi laboristaren erroak ez ziren-eta izaera marxistakoak, Edward Carpenter eta bestelako sozialista kristauenak baizik<sup>8</sup>.

Hamarkadaren amaieratik ordea, zenbait aldaketa kualitatibo antzeman daitezke. Arthur Mortonek historiografia marxistako Ingalaterrari buruzko lehen eskuliburua idatzi zuen heinean, 1938an zehazki, Moskutik itzultitako Christopher Hill Aro Berriko Ingalaterrari buruz eginiko sobietar ikerketak hedatzen hasi zen uhartean; besteak beste, Sergei Ivanovitx Arkhangelskiren nekazaritza ikerketak. Hala, Britainia Handiko Alderdi Komunistak antolatutako 1640ko gertakarien hirugarren mendeurrenaren ildoan, Ingalaterraren iragan iraultzailearen inguruko berrikuspen bat idatzi zen. Jardun horretan idatziriko artikulua eta eskuliburuaren zenbateko handi bat Hillek osatu zuen<sup>9</sup>. Lan horietan, XVII. mendearen erdialdeko iraultza ingelesa klaseen arteko borroka gisan azaldu zen, zeinetan, merkataritza-burgesiak aristokrazia feudalaren domeinu zaharrarekin amaituko baitzuen. Jada kapitalismoaren jatorrien harira, Maurice Dobbek kapitalismoaren garapena merkataritza arloan ez ezik, XV. mendean hasi eta XVI. mendean egonkorturiko nekazaritza eta artisautza ekoizpen eredu berrietan ikusi zuen<sup>10</sup>.

Bigarren Mundu Gerraren ondoriozko etenenaren ostean, 1946an argitaratutako Dobben lanak XVII. mendeko egitura ekonomikoaren ezaugarritzea eta feudalismoaren eta kapitalismoaren arteko trantsizioa alderdi komunistaren barneko ikerlarien artean hedatu zuen (besteak beste Hobsbawm, Hilton, Thompson eta Hillen artean)<sup>11</sup>. Gerra Hotzeko giroan, alderdi komunistak 1649. urtearen hirugarren mendeurrena zela, orduko

---

<sup>8</sup> F. Benigno, op. cit. 49 orr.

<sup>9</sup> Ibidem, 50 orr.

<sup>10</sup> M. Dobb, *Estudios sobre el desarrollo del capitalismo*, Madril, Siglo XXI Editores, 1984, 215-218 orr.

<sup>11</sup> R. Hilton, arg. *La transición del feudalismo al capitalismo*, Bartzelona, Editorial Crítica, 1982, 7-13 orr.

gertakizunak kapitalismoaren oztopo ziren harreman feudalen ezabatzean oinarritutako iraultza burges gisan azaldu zituzten. Testuinguru horretan, Paul Sweezyk 1950ean argitaratutako artikuluekin, ikerketa marxista britainiarren erdigune ia bakarra ekoizpen modu feudaletik kapitalistarako trantsizioa bilakatu zen. Sweezyren hurrengo hitzak testuinguru akademikoaren erakusle ezin hobe hobeak dira: “Vivimos en el período de transición del capitalismo al socialismo, con lo que adquieren interés muy especial los estudios sobre las anteriores transiciones de un sistema social a otro”<sup>12</sup>.

Norabide problematiko horrek, aldaketa iraultzailearen gaiari atentzio gutxi eskaini zion, argitu beharreko arazo nagusia eraldaketa eta trantsizio ekonomikoa izango baitzen. Ideia horien arrazoiketan, beraz, garrantzia handia izan zuen garaiko klima kulturalak, ezkerreko historiografiak historia ekonomikoa historia politiko tradizionalarekin kontrajarriko zuen heinean (garai horretakoa da Hugh Trevor-Roperrek hasitako “gentry” taldearen inguruko eztabaida ere<sup>13</sup>). Urte horietan, historialari komunistak itotzeko arriskuan zeuden gero eta eskuinerago kokatutako instituzio akademiko eta kultural zurrunen eta joera sektarioko alderdi komunistaren artean.

Komunismoan oinarritutako gizarte eredu berri batekiko itzaropena lausotu zen heinean, alderdi laboristarekiko ordura arteko urruntasuna murriztu eta elkarlan eta elkarrizketaz jositako epealdi berri bati hasiera eman zitzaion. Elkarlanaren aldeko jarrera berri horren fruitu nagusia 1952an sortutako *Past and Present* aldizkaria izan zen. Barne elkarlana ez ezik, aldizkari horretatik Europa mailako ikerketen integrazioa eta amankomuneko eztabaidak sustatu ziren alde batetik. Eta, bestetik, ordura arte uhartearen izaera bereizgarrian osaturiko ikerketa isolatuak Europa mailako testuinguru historikoan ezartzen hasiko ziren<sup>14</sup>.

Ez kasualitatez, *Past and Present* aldizkarian bertan aipatu zuen lehen aldiz zuzenki “XVII. mendeko krisi orokorra” 1954. urtean Hobsbawmek. XVII. Urte hartan argitaratutako bi artikuluetan Hobsbawmek aurrenekoz krisiaren ideiarene teorizazio zehatza gauzatu zuen. Artikulua Europa mailako ikerketa ekonomikoen ekarpenak

---

<sup>12</sup> P. Sweezy, “Crítica”, in R. Hilton arg. op. cit. 43 orr.

<sup>13</sup> P. Fernández Albaladejo, “Veinticinco años de debate sobre la crisis del siglo XVII”, in T. Aston, koord. op. cit. 369-370 orr.

<sup>14</sup> J. de Vries, “The economic crisis of the seventeenth century after Fifty Years” in *The Journal of Interdisciplinary History*, 40. alea, 2. zbk, 2009, 165-167 orr.

britainiar eztabaidara barneratzeko saiakera bat zen hein batean, batez ere Frantziako *Annales* aldizkariaren inguruko berritzapen historiografikoen harira.

Hobsbawmen aburuz, XVII. mendean europar ekonomiak krisi orokor bat jasan zuen, ekonomia feudal baten ordeztako ekonomia kapitalista baten ezarpenaren trantsizio globalaren azken aldia izanik<sup>15</sup>. Horrela, XVII. mendea krisi gisa ezaugarritu zuen, bai Europari bai horren eragin ekonomikoaren menpeko lurralde orori dagokionean. Krisi hori sistema feudalaren barne kontraesanen ondoriozkoa izatearen harira, Europan zehar oso erantzun desberdinak eragin zituela argudiatu zuen. Krisi ideia ez litzateke atzeraldi ekonomikoaren sinonimo, botere ekonomikoaren kontzentrazio eta izaera kapitalistako metaketaren garai bat baizik, zeinetan hierarkia berriak osatuko baitziren, zehazki 1620-1680 epealdian. Horren ustetan, krisiaren ondorio nagusia ez litzateke Mediterraneoan ezarritako ardatz ekonomikoaren lekualdaketa Iparraldeko eremu atlantiarraren ingurura. Krisiaren ondorio nagusia, Holandaren hazkunde eredu zaharrarekin batera, baliabideen metaketaren eta egitura sozioekonomiko berrietan oinarritutako eredu ingelesaren agerpena izango zatekeen, kapitalismoaren garapenerako oztopo ziren muga feudalak gainditzea ahalbidetuko zuena<sup>16</sup>.

Dobek hasi eta, Hobsbawmek berak ere erantzun nahi zuen galdera nagusia kapitalismoaren garapenaren erritmoari zegokiona izango zen, funtsean; XV. eta XVI. mendeetako hazkundearen mugak XVII. mendeko krisiaren ondorioz gaindituko ziren heinean, krisiaren irteeraren eta hurrengo mende bukaerako “industria iraultzaren” arteko hutsune kronologikoa, hain zuzen ere. Norabide problematiko hori argitzeko bidean, garai osoa aztertzeko esparru teoriko bat ezarri zen, zeina ikerketa ugariaren oinarrian kokatu eta oso erabilgarria izango baitzen<sup>17</sup>.

Sarri, Trevor Astonek 1965ean koordinaturiko lan-bilduma irekitzen zutelako, Hobsbawmen bi artikuluen irakurketa mugatu bat egin izan da, besteak beste, mendearen erdialdeko erreboltei eskainitako arreta urria erasotuz. Horregatik, zenbait testuingurutan britainiarraren idazlanak XVII. mendeko krisiaren inguruko eztabaidaren hasieratzat har daitezkeen arren, beharrezkoa da bere ideiak eztabaidaren lehen epealdi horren barnean ezarri eta ulertzea, ekoizpen moduen arteko trantsizioan oinarritutako lehen fasean, hain zuzen ere. Izatekotan historia konparatu baten ikuspegitik eginiko lehenengo ekarpena

---

<sup>15</sup> E. J. Hobsbawm, “La crisis del siglo XVII” in T. Aston, koord. op. cit. 15 orr.

<sup>16</sup> Ibidem, 45-55 orr.

<sup>17</sup> Ibidem, 40 orr.



izan zela esan daiteke. Eztabaidaren testuinguru horretan soilik uler daiteke, krisiaren, gorengo unetzat hartzen zituen arren, mendearen erdialdeko errebolta eta iraultzeei eskainitako arreta urria. XVII. mendeko krisiaren inguruko eztabaidaren bigarren epealdi batean ordea, mendea erdialdeko errebolta ikerketa eta gogoeten erdigune bilakatu ziren. Une horretan jada, Europako testuinguru kulturala oso bestelakoa zen<sup>18</sup>.

### 3. Eztabaidaren joan etorrian: “krisi orokorra” eta errebolta.

1956. urtean Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistaren XX. Kongresuak sekulako eragina izan zuen Britainia Handiko Alderdi Komunistan afiliatutako historialarien artean. Moskutik gidatutako bira ortodoxoaren aurrean, Hungariako iraultzaren zapalkuntzak Europa osoko alderdi komunisten barneko iritzi desberdinak areagotu zituen, ordura arteko ilusio asko itzaliz. Testuinguru horretan, britainiar intelektual asko, historialariak barne, 1956-1957. urteetan alderditik atera ziren. Antagonismo soziala gatazkaren esperientzia politikoan irakurtzeko behar berriak, gizartearen arazoiketa eredu mekaniko edota funtzionalistak ezabatu, eta eragile historikoen nahi eta jardunean oinarrituriko irakurketa berriak azaleratu zituen<sup>19</sup>.

Ildo horretan, berriro ere ez da bitxikeria hutsa *Past and Present* aldizkariak “Seventeenth century revolutions” gaiaren inguruko mintegi bat antolatu izana Londresen 1957an<sup>20</sup>. Mintegi horretan, historialari marxisten partaidetza ezik, bestelako joera historiografikoen baitako historialarien partaidetza azpimarratu behar da. Besteak beste, John Elliot, Trevor-Roper edota Lawrence Stone bezalako ikerlarien esku hartzea mugarri garrantzitsua izan zen XVII. mendeko krisiaren inguruko eztabaidari dagokionez, Britainia Handiko historiografia marxistaren elkarlanaren aldeko joera azpimarratu ez ezik, historialari berri horien gerizpean eztabaidak izaera berri bat lortu baitzuen. Aldizkariaren azpi-izenburuaren aldaketa aipatutakoaren irudi bikaina da<sup>21</sup>.

---

<sup>18</sup> F. Benigno, op. cit. 53 orr.

<sup>19</sup> Ibidem, 53-54 orr.

<sup>20</sup> Á. Casals, “La crisis del siglo XVII: ¿de imprescindible a inexistente?”, in *Vinculos de Historia*, 2. zbk, 2013, 54 orr.

<sup>21</sup> Azpigituluaren aldaketa 1958ko 14. alean gauzatu zen: aurreko azpigitulua, *A Journal of Scientific History*, kutsu ideologiko leunagoko *A Journal of Historical Studies* azpigituluarekin ordezkatu zen. Era berean, erredaktore-taldean, besteak beste, Lawrence Stone eta John Elliot sartu ziren, F. Benigno, op. cit. 54 orr.

Hasierako “krisi orokorraren” ideia marxista esparru akademikoaren atzealde antzuan lurperatu ez izana, atxiki behar zaio historialari ez marxistek eztabaidarako gonbidapena onartzeari, krisi nozioaren alde bakarreko irakurketa estutik at, lanketa esparru teoriko zabal bat eratu zen horrela<sup>22</sup>. Lehen epealdiko eztabaidaren ikuspegi nagusiez gain, bestelako joera historiografikoen ordura arte landu gabeko ertzetatik jorratu zuten XVII. mendeko krisiaren ikergaia. Zentzu horretan, Trevor-Roperren ekarpenak funtsezkoak izan ziren. Laburbilduz, bi izan ziren ikerlari horren ekarpen nagusiak. Alde batetik, errebolta britainiarrek, ordura arte iraultza burges bezala definitu eta hortaz kapitalismoaren garapenean izaera bereizgarriko gertakizun bezala ulertu izan zirenak, Europa osoko errebolten testuinguru orokorrean ezarri zituen. Bestetik, “krisi orokorra” bera ukatu baino, krisiaren izaera politikoa aldarrikatu zuen, pentsalari marxisten irizpide ekonomikoen aurka.

XVII. mendeko krisia Europako monarkia absolutuen hedakuntzaren aurkako erreakzio orokor bat zatekeen. Laburbilduz, gobernu eredu absolutista berriek “estatuaren” eta “gizartearen”, “herriaren” eta “gortearen” arteko haustura bat eragingo zuketuen. Eredu politiko berri horrek sortutako haustura eta gizartearen egitura tradizionalen ezinegona, XVII. mendearen erdialdeko errebolta eta matxinaden bitartez azaleratuko zatekeen. Hala, krisiak ez zutekeen kapitalismoaren garapenean oztupo feudalen gaintitze prozesu baten barneko izaera ekonomikoa, baizik eta erregetzaren boterearen areagotzeak sorturiko kontsentsu urriaren ondoriozko krisi politiko sakona eta orokorrarena. Hala, egitura feudalen barnean oztupoz beteriko burgesia iraultzailearen izaera bera zalantzan jarri zuen, egoera horren aldeko frogak zehatzen urritasunaren argudioaz. Eta, beraz, bere ustetan, frogatu gabe geldituko zatekeen kapitalismoaren garapenerako aurreko egiturekiko haustura sakonaren ezinbestekotasunaren argudioa<sup>23</sup>.

XVII. mendearen erdialdeko Europa osoko erreboltekin eragile eta helburu oso bestelakoak izan arren, bere iritziz mota horretako gertakizun horien erdigunean amankomuneko arrazoi bat zegokeen; hots, estatu absolutuaren hedakuntza eta horren aurreko erresistentzia.

1960ko hamarkadaren erdialdean Trevor-Roperrek koordinatutako bildumak, zeinak ordura arteko eztabaiden inguruko ekarpen nagusiak biltzen baitzituen, arrakasta handiko

---

<sup>22</sup> A. Casals, op. cit. 54-55 orr.

<sup>23</sup> H.Trevor-Roper, “La crisis general del siglo XVII” in T. Aston, koord. op. cit. 80-85 orr.

ikerketa esparru bilakatu zuen XVII. mendeko krisia eta, batez ere, mendearen erdialdeko errebolten multzoa. Hillek idatzitako sarreran, jada bizpahiru hamarkadetako krisiaren eztabaida balantzan jarriz, ñabardura askoren gainetik Mendebaldeko eta Erdialdeko Europak XVII. mendearen erdialdean krisi ekonomiko eta politiko sakona pairatu izanaren adostasun akademikoa aipatzen zen; baita krisi horrek esparru desberdinetan zeresan eta ondorio anitzak eragin zituela gorpuzten zuen ideia ere<sup>24</sup>.

Jada 1957ko Londreseko mintegian azalduko 1640ko errebolta katalanaren ikerketaren bitartez, Elliotek Trevor-Roperren arrazoiketaren hainbat oinarri kinka larrian utzi zituen. Funtsean, hark egindako ikerketa erregionalen antzerako kasuetan “Gortea” eta “Herria” dikotomian oinarritutako azalpenen zehaztasun urria salatu zuen. Sarri, estatuaren egituren hedakuntzaren kontrako tentsioak gizartean baino, Gorteen baitan kokatzen zirela azpimarratu zuen Elliotek. Monarkia Hispanikoaren kasua izaera horretakoa litzateke, periferiako erreboltek, funtsean, egitura estatalen barnean bazterturiko eragileen artean izango zuketena eta arrakasta lehenik. Bestalde, monarkia osoko gorte hipertrofiatua izanik, Gaztelan errebolten arrakasta ezak erregetzaren hedapenaren eta egitura tradizionalen erresistentziaren arteko erlazio zuzena ukatuko zukeen<sup>25</sup>. Gakoa, beraz, estatuaren ekintza eta honekiko erresistentzia ikerketa erregionalen bitartez gauzatzea zatekeen.

Ellioten ikerketa erregionalen ildoan, 1967-1968. urteetan Johns Hopkins unibertsitate estatubatuarrean “Revolution and Rebellion in Modern Europe” izeneko mintegia antolatu zen, Aro Berriko errebolta sailkatzeko asmoarekin. Ikerketa ugariaren jardunak, errebolta horien sailkapen zehatz bat gauzatzearen ezintasuna azalerratu zuen; antzekotasunen aurrean tokian tokiko desberdintasun eta ñabardurak ugariagoak izanik. Elliotek eginiko ohar trebearen esanetan: “Los modelos tenían, y tienen, una forma aburrida de derrumbarse ante una mirada analítica”<sup>26</sup>.

Ikerketa erregional edota orokor askoren barnean ordea, oraindik ere XVII. mendearen erdialdeko gertakizunen izaera bereizgarria aipatzen zen. Helmut Koenigsberger ikerlariak aztertutakoaren harira, mendearen erdialdeko errebolten izaera bereizgarria onartzea sarri akats larri bat zatekeen, hau da, krisi aurreko gizarteak egonkor irudikatzea. Gizarte aurre-industrial orotan, oreka eza eta noizean behineko errebolta ohikoak izaten

---

<sup>24</sup> C. Hill, “Introducción”, in T. Aston, koord. op. cit. 11-14 orr.

<sup>25</sup> J. Elliot, *España, Europa y el mundo de ultramar (1500-1800)*, op. cit. 98-100 orr.

<sup>26</sup> Ibidem, 99 orr.

ziren eta<sup>27</sup>. Zentzu horretan, XVII. mendeko errebolta aurreko gizaldiko gertakizunen jarraikortasunean uler zitezkeen. Era berean, eta kutsu marxistatik sortutako iraultzaren definizioaren ondorioz, industrializazio aurreko gizarte orotan klase gizarteko portaera ereduak atxikitzea oker larriak eragin ohi zituen<sup>28</sup>.

Roger Merrimanen “Six contemporaneous revolutions” liburua, 1938an argitaratua, mendearen erdialdeko krisi politikoaren inguruko eztabaiden erreferentzia ohikoa izan da. Elliotek zehazki, XVII. mendeko krisiaren “asmakizunean” ekarpen handiena izan zuen testu bezala zekusan, ildo marxistako ikerketekin batera, Frantzia eta Ingalaterrako gerra zibilen, Portugal, Katalunia, Napoli eta Siziliako errebolten eta Holandako estatu kolpearen garaikidetasuna azpimarratzeko saiakera gauzatu baitzuen.

Eztabaidaren testuinguru horretan, jada 1957ko mintegian Elliotek “1560ko krisi orokorraren” ideiaz ironiarekin mintzatu, eta, ordura arteko tesien mugak plazaratu zituen, XVI. mendeko bigarren erdialdean hurrengo mendeko gertakizunen antzeko pilaketa kuantitatibo bat eman zelako ideia erabiliz<sup>29</sup>. Norabide historiografiko oso bestelako batetik, Alexandra Dmitrievna Lublinskaia historialari sobietarrak, iraultza burgesaren definizioaren gakoan, Frantziako kasua Ingalaterrako kasuarekin alderatzea oker handia zela adierazi zuen<sup>30</sup>. Ivo Schöfferrek berriz, Holandako kasua aztertzen ari zela, lurralde horretan krisi ideiarekin izatea bera zalantzan jarri zuen, Holandaren urrezko aroa izanik<sup>31</sup>.

Niels Steensgaardek, 1970eko hamarkadako “krisi orokorraren” agortze kontestuan, krisi delakoa atzeraldi orokor batekin berdintzeko ezintasuna aldarrikatu zuen. Eta arestian aipatutako ikerketa erregionalen norabide berberean, krisiaren eraginak sektore eta lurralde desberdinetan ondorio anitzak izan zituela baieztatu zuen. Ondorio eta forma anitzeko krisia bera, ekoizpen ildokoa ez ezik, Estatuaren sarreren banaketaren ingurukoa zatekeen. Eta, garaiko errebolte amankomunean zerbait izan bazuten, hori estatuaren erreformak sortutako gizarte desorekaren aurreko erreakzioa izan zen. Ordura arte errebolta edota iraultzei ezaugarritutako kutsu aurrerakoi eta puskatzailearen aurrean, iskanbila hauek, zerbait amankomunean izatekotan, aldaketan, berritasunaren aurkako

---

<sup>27</sup> J. de Vries, “The economic crisis of the seventeenth century after Fifty Years”, op. cit. 151 orr.

<sup>28</sup> Ibidem, 165-167 orr.

<sup>29</sup> J. Elliot, op. cit. 102 orr.

<sup>30</sup> A. D. Lublinskaya, *French Absolutism: the crucial phase, 1620-1629*, New York, Cambridge University Press, 1968, 327-334 orr.

<sup>31</sup> I. Schöffer, “Did Holland’s Golden Age Coincide with a Period of Crisis?”, in G. Parker & L. M. Smith arg, *The General Crisis of the Seventeenth Century*, Londres, Routledge & Kegan Paul, 1985, 83-85 orr.

erantzuna izango zen. Merrimanen “sei iraultzak” horrela, Steensgaarden “sei erreazio” bilakatuko ziratekeen<sup>32</sup>.

#### **4. Eztabaidaren adarkatze eta higitze prozesuaren ildoan.**

Behin ikerketa erregionalen bitartez eredu orokorrak ahulduta, krisiaren inguruko eztabaida agortzeko arriskuan aurkitu zen. Hala ere, krisi nozioaren malgutasuna zela eta, norabide berri batzuk hartu eta, 1950 eta 1960ko hamarkadetan proposaturiko kodeetatik urrun azaldu arren, krisiaren ideiak ikerketa ugari sustatu zituen aurrerantzean ere. Testuinguru horretan, Theodore K. Rabb eta bere “The struggle for stability” liburua, 1975ean idatzia, garrantzia handikoa izango zen. Bere ustetan, “krisi orokorraren” tesiak argitasuna baino iluntasuna eskaini izan zuen; ikerketak ikuspegia nahastu eta, esparru teoriko edota “framework” bateratu eta erabilgarriak osatzea oztopatuko zukeen eta. Hala, “krisi” nozioaren arrakasta ordura arte XVII. mendeak izandako ezaugarritze urriaren, (“shapeless”), ondorio zatekeen<sup>33</sup>.

Rabbek ere XVII. mendearen erdialdetik aurrera Europa aro berri batean sartuko zela ohartarazi zuen. Norabide aldaketa zehazteko ordea, krisi aurreko eta osteko aldiak hartu zituen kontuan Rabbek; hau da, fenomeno bera aztertu baino, ondorioen azterketa erabili zuen tresna analitiko gisa. Esparru kronologikoaren zabaltze horretan, Paul Hazardek idatzitako “La crise de la conscience européenne: 1680-1715” liburua berreskuratu zuen, horretan, Hobsbawmen 1620-1680 epealdiaren gerizpean arreta urria jasotako mendearen azken hamarkadak jorratu zituen eta. Era horretan, ikuspegi kultural batetik, Hazardek 1680. urtearen inguruan ezarriko du krisiaren hasiera. Hala, Rabben hitzetan, krisiaren orokortasuna autoritatearen ezegonkortasunean oinarrituko zatekeen, krisi osteko garaiaren definizio elementu nagusia, ordea, autoritatearen egonkortzea izango zen.

Era berean, “krisi” nozioaren definizioari dagokionean, iraganean erabilitako esanahi zabaletatik aldendu, eta, haren erabilpen zehatza proposatu zuen. Hein batean, asmoa bera iraultzailea zen, ordura arte krisiaren inguruko ezaugarritze, teorizazio eta bestelako jardun intelektual asko gauzatu arren, krisi nozioaren definizio zehatzik ez baitzen eman. Laburbilduz, epe laburreko egoera larri bat litzateke krisia, aurreko eta ondorengo

---

<sup>32</sup> N. Steensgaard, “The Seventeenth-century Crisis”, in G. Parker & L. M. Smith arg. op.cit. 44-47 orr.

<sup>33</sup> T. Rabb, *The struggle for stability in Early Modern Europe*, New York, Oxford University Press, 1975, 30 orr.

garaiekiko desberdina. Rabbek zioen egoeraren larritasunari soilik eskaini izan zitzaioela behar adina arreta. Hobsbawmek berak aurreko krisiekiko desberdintasunak aipatzen bazituen ere, feudalismoaren ustezko oztopen gainditze osteko egoera oso modu zehaztugabeen zuen azaltzen<sup>34</sup>.

Erabilera zehatz horri dagokionean, hitzaren esanahi tradizionala argigarria izan zitekeela argudiatuko zuen. Antzinako grekeran, “krisi” hitza esparru medikoan erabili ohi zen eta krisiak hil ala biziko egoera bat adierazten zuen. Inflexio puntu bat adierazten zuen heinean, krisiaren osteko egoeraren garrantzia azpimarratuko zukeen. Era berean, esanahi horrek inolako kutsu teleologikorik ez izatearen abantaila zuen, soilik aldakortasun gune bat azalduko zukeen heinean<sup>35</sup>.

Eztabaidaren norabide semantiko berri horren barnean, Rabben proposamenaz gain, Randolph Starn historialariak idatzitako “Historians and *crisis*” artikulua beste mugari garrantzitsu bat izan zen. Saiakera linguistiko horien bitartez, lehen aldiz XVII. mendeko krisiaren inguruko eztabaidan “krisi” izendapenak berak gogoeta eta ikerketen ikergai nagusi bilakatu zen. Aipatutako artikuluan, Starnek “krisi” nozioaren erabilpen historikoaren azterketa bat gauzatu zuen, krisiak izan zitzakeen erabilera zehatzak argitzeko<sup>36</sup>. Norabide linguistiko berri hori 1970eko hamarkadan kokatzen zen, jada esan bezala orokortze tradizionalak ikerketa erregional eta kualitatiboen bitartez ahuldu zirenean hain zuzen ere<sup>37</sup>.

Bere artikuluan, Rabben lanaren ildotik, Starnek “krisi” izendapenaren arrakasta, bere esanahi zabal eta malguan kokatu zuen. Horregatik, izendapenaren jatorria ulertzea eta historian zehar izandako bilakaera aztertzea garrantzitsua iruditzen zitzaion, hitzak eta kontzeptuak, iraganeko gertakizun eta eragileak ezaugarritzeko ahalmena izan ez ezik, jardun historikoaren igarotzearen ondorioz esanahiz aldatzen baitira.

Ordura arte, Ilustrazioaren eta XIX. mendeko teoria soziologikoen bitartez, krisi nozioak saihestu ezineko aldaketaren ikusmolde teleologikoa bildu ohi zuen bere baitan. Progresuaren edota iraultzaren bitartezko aldi berri baten eraketak alde bakarreko kontakizunen nagusitzea baimentzen zuen, zeinetan aldaketak eragile jakinen eskutik

---

<sup>34</sup> Ibidem, 33 orr.

<sup>35</sup> Ibidem.

<sup>36</sup> R. Starn, “Historians and *crisis*” in *Past and Present*, 52. alea, 1. zbk., 1971, 3-22 orr.

<sup>37</sup> J. B. Shank, “Crisis: a useful category of Post-Social Scientific Historical Analysis?”, in *American Historical Review*, 113. alea, 4. zbk., 2008, 1090-1099 orr.

gauzatzen baitziren. Esate baterako, ikusmolde horretatik, modernizazio bideko aldaketa oro bere osotasunean burgesiaren ekintza iraultzailearen baitan uler zitekeen soilik; baita modernizazio eredu bakar baten baitan ere. Hortik Ingalaterrako XVII. mendeko Iraultza Loriatsuari edota “Commonwealth” izeneko egitura errepublikarrari emandako nonahiko garrantzia. Gakoa ordea, Starnen hitzetan, “krisi” nozioa aldaketaren eta jarraikortasunaren arteko erdibidean kokatzean zetzan, aldaketaren ezinbestekotasuna eta bere izaera iraultzailea lausotuz, eta ezabatuz sarri<sup>38</sup>.

Horrez gain, “krisi” nozioak metafora gisan izan zezakeen potentzialtasunaren inguruan gogoeta egin zuen. Horrela, izendapen horrek historiaren kontakizunaren eta orokorrean hezkuntzaren arloan aukera handiak eduki zitzakeela arrazoitu zuen Starnek, denbora historikoaren ertz aniztasuna islatzeko oso erabilgarria izanik.

2003-2004. urteek esanahi sinboliko handia izan zuten XVII. mendeko krisiaren inguruko eztabaidaren belaunaldi zaharren amaierarekin. Bi urte horien joanean, Hobsbawmen “krisi orokorraren” artikulu ospetsuaren 50. urteurrena izateaz gain, 1950eko hamarkadan hasitako eztabaidako zenbait kide hil ziren, besteak beste, Trevor-Roper eta Hill. Hala, XXI. mendearen lehen urteen urruntasunetik, paisaia historiografikoaren itxura jada oso bestelakoa zela azpimarra daiteke. Alde batetik, XVII. mendeko krisi orokorraren hausnarketa marxisten erdigune zen iraultza ingelesaren berrikusketa sakona gauzatuko zen, “iraultza” nozioa bera baztertzeko joera nagusituz. Beste aldetik, absolutismoaren berrikusketa sakonak errebolten izaera eta funtzionamenduaren inguruko ideia asko erasotu zituen<sup>39</sup>.

Gaur egun, XVII. mendeko krisi nozioak oso trataera polarizatua du. Batzuek krisia bera ia ez dute aipatzen. Beste batzuek, krisia bera aipatu arren, mendearen erdialdeko gertakizunei dagokionean erabiltzen dute, baina betiere orokortasun kutsua erlatibizatuz; jada onartutako desberdintasun erregional eta sektorialen ildoan<sup>40</sup>. Hala ere, mende horretako krisiaren inguruan adostasun orokorrik bada, hauxe da: krisi eta iraultzaren arteko harremanaren arteko ideia tradizionalen berrikuspen sakona. Orain dela gutxira arte, iraultza edo errebolta krisiaren azaleratze nabari bezala ulertzen bazen ere, gaur egun krisi egoeraren eta errebolta arteko harremana badirudi ez dela hain begi bistakoa.

---

<sup>38</sup> R. Starn, op. cit. 3-22 orr.

<sup>39</sup> X. Gil Pujol, *Tiempo de política. Perspectivas historiográficas sobre la Europa moderna*, Bartzelona, Universidad de Barcelona, 2006, 355-356 orr.

<sup>40</sup> T. Munck, *La Europa del siglo XVII. 1598-1700*, Madril, Ediciones Akal, 1994, 268-269 orr.

Orokorrean, Ingalaterrako matxinada multzoari emandako garrantzia asko lausotu da. “Iraultza Ingelesa” izendapenaren harira, XVII. mende erdialdeko gizartea 1789ko edota 1917ko gatazka eta jardute erduekin berdintzearen okerra azpimarratu da. 1960. urtearen inguruan Hillek XVII. mendearen erdialdeko errebolten inguruan ulertutako epealdi ingelesa “The Century of Revolution”<sup>41</sup> liburuaren bitartez azaldu bazuen, jada XX. mendearen bukaeran Conrad Russellek “Unrevolutionary England, 1603-1642”<sup>42</sup> izeneko liburua argitaratuko zuen. Berrikuspenaren sakonera begi bistakoa da.

Uhartearen kasuan “iraultza” nozioaren erabilerak orokorrean atzera egin badu, Kontinentean, ordea, momentura arte “iraultza” noziotik oso urrun kokatutako gertakizunei izendapen hori ezarri zaie. Besteak beste, Fronda, Katalunia edota Gaztelako errebolten harira, Europako kasuen izaera iraultzailea baieztatu baino, modernitatearen eboluzioaren ideia kanonikoaren berrikusketa gauzatzea izan dute helburu. Modernitatearen kontakizun nagusi horrek, Ingalaterra erdigunean kokatu ohi baitzuen, bertako jardute erdua kontinente osora hedatuz<sup>43</sup>.

Zehaztasun kontzeptual berri horren ildoan, “iraultza” bezalako beste izendapen analitiko batzuen berrikusketa gauzatu da. Horrela, burgesia, absolutismoa eta bestelakoek, kolore bakarreko ikuspegia alboratuz, garrantzia galdu dute ñabarduren ekarpenei esker. Aldaketari dagokionez, adibidez, tradizioz eraldaketa inertzia oro burgesiari atxikitu izan zitzaion heinean, ikerketa berrien bitartez berrikuntzaren baitako konplexutasun soziala aldarrikatu da, burgesiaren jabego ziratekeen alde bakarreko saiakera iraultzaileak lausotuz. Era berean, “absolutismo” izendapenak XVII. mendetik aurrera egonkortutako erregetza modernoaren nonahikotasuna puztu du, gizarteko bestelako eragileekiko alde bakarreko harremanak osatzearekin batera<sup>44</sup>.

Berritzapen analitikoaren testuinguruan, Aro Berriko gatazkei dagokionean, ikuspuntu berriek “negoziaketa” edota “sare sozial” izendapenen bitartez, iraganeko istiluak ulertzeko gako tradizionalak baztertu dituzte. Hala, altxamendu edota errebolta herrikoien ustezko irrazionaltasunaren aurrean, sarri hauek zituzten euskarri ideologiko sendoak azpimarratu dira. Zentzu honetan, pentsamendu errepublikarrak zenbait erreboltetan izandako garrantzia gutxietsi da agian; ideia errepublikar hauek abstrakzio eremuan ez

---

<sup>41</sup> C. Hill, *The Century of Revolution. 1603-1714*, Londres, Routledge Classics, 2002.

<sup>42</sup> C. Russell, *The Unrevolutionary England. 1603-1642*, Londres, The Hambledon Press, 1990.

<sup>43</sup> X. Gil Pujol, op. cit. 358-360 orr.

<sup>44</sup> Ibidem.



ezik, gizartearen irudikari eta jardutean izandako pisua pentsa izan dena baino handiagoa izango lezakete eta<sup>45</sup>.

Azkenik, XVII. mendearen erdialdeko Europa osoko errebolta anitzen harira, liskar horien baitan autoritatearen kritika sakonean oinarritutako jardunek historialari askoren interesa erakarri dute azken hamarkadetan. Badirudi balido figuraren bitartezko etengabeko salaketa eta haserreez gain, mendearen erdialdeko errebolten garaian Europa osoko herrialdeetan esfera publikoen hedakuntza nabaria jazo zela; batez ere, autoritatearen kritikaren eta klientela-sare desberdinen arteko propagandaren bitartez<sup>46</sup>.

## **5. Krisiaren ertz ekonomikoaren nondik norakoak.**

Agian “krisi orokor” kontzeptuaren muga handiena Europa osoaren baitan ertz politiko, kultural eta ekonomiko guztiak bilduko zituzkeen prozesu bat osatu nahia izan zen hasieratik. Lanean zehar aipatu den bezala, hasierako begirada zabal horretatik, hamarkaden joanean krisi nozioaren perimetroa mugatzeko joera nagusitu zen. Gaur egun, XVII. mendeko krisi orokorraren ideiak baliorik izatekotan, batez ere XVII. mendeko zailtasun ekonomikoen multzoari dagokiola baieztatu liteke. Era berean, hurrengo litzateke krisi ekonomiko horren baieztapen orokortuena: XVI. mendeko hazkunde epearen osteko geldialdi luze eta hedatuaren izaera hurrengo mendean zehar<sup>47</sup>.

Epe luzeko geldialdi horren ideia ordea, 1950eko hamarkadako krisiaren eztabaida sortu baino lehenagokoa da. Zehazki, 1930eko hamarkadan loratu zen tradizio luzeko Europa osoko prezioen ikerketen testuinguruan kokatzen zen. Prezioen inguruko datu pilaketa sutsu horrek, epe luzeko joerak bereizi zituen Europako ekonomian. Horien bitartez, prezioen igoera eta jaitsiera ziklikoak antzeman zitezkeen. Historia politiko eta kulturean oinarritutako Errenazimendu, Barroko edota Ilustrazio bezalako nozioetatik harago, denbora-historiko neurtzaile berriak lortu zituen historia ekonomikoak horrela, Europako prezioen hazkunde (A aldia) eta beheraldi (B aldia) faseetan oinarritutakoak. Prezioen gorabeheren lehen ikerketek berehala sortu zituzten joera aldaketa horien zergatien inguruko galderak, eta are garrantzitsuago, galdera horiek erantzuteko grina.

---

<sup>45</sup> J. M. Imízcoz, “Las redes sociales de las élites. Conceptos, fuentes y aplicaciones”, in E. Soria, J. Bravo eta J. M. Delgado eds., *Las élites en la época moderna: la Monarquía Hispánica*, Bol. 1: Nuevas Perspectivas, Universidad de Córdoba, 2009, 77-81 orr.

<sup>46</sup> F. Benigno, op. cit. 66-70 orr.

<sup>47</sup> J. de Vries, op. cit. 156 orr.

Earl J. Hamiltonek adibidez, XVI. mendeko prezioen igoera Mundu Berriko zilar eskaintza berriaren eta diru-oinarriaren hazkundearen ondorio zela argudiatu zuen. John M. Keynes ekonomialariaren idazlanen ildo berean, Hamiltonek XVI. mendeko prezioen iraultza (A aldia) etekin aukera anitzez betetako inflazio garaitzat ikusi zuen, garai horretan kapitalismo modernoa sortuko zelarik. Beraz, XVII. mendeko prezioen jaitsiera (B aldia), zilar jarioaren eta txanpon euskarriaren uzkuetzearen ondorio soila zatekeen<sup>48</sup>. Baina hori ez zen hori prezioen beheraldiaren inguruko interpretazio bakarra izan. Kondratieff zikloen interesetik abiatuta, Joseph A. Schumpeterrek gizarte aurre-industrialetako beheraldi epeak berrikuntza garaiak izan ohi zirela aldarrikatu zuen. Ekonomiaren beheraldi eta uzkuetze testuinguruan, berrikuntzak barneratzeko gai ziren eragile eraginkorrenak biziraungo baitzuten, “suntsipen sortzailea” izeneko prozesuaren baitan<sup>49</sup>. Horrela, XVII. mendeko lehen erdialdeko prezioen gainbehera bortitzean etorkizuneko hazkunde fasearen euskarriak ezarriko ziratekeen ikerlari horren aburuz.

Bitxia eta interesgarria da XVII. mendeko krisiaren ezaugarritzearen inguruko eztabaida ekonomikoaren alderdi hau, Izurrite Beltzaren gerizpeko XIV. mendeko krisiaren antzera, krisia beheraldi eta antzutasun garai edota etorkizuneko oparotasunaren oinarri bezala ulertzearen arteko bi interpretazioen kontrajartzea azaleratu baitzen. Ekonomialari gehienek ordea, prezioen gorabehera hutsetatik harago, XVII. mendeko krisiaren gorpuzkera ekonomikoa antzemateko ekoizpen eta kontsumo aldagaiak ikertu zituzten berehala. Zentzu horretan, lehenengo pausoa prezio gorabeherak garaiko gizartearen eskaintza eta eskaeraren testuinguruan ezartzea izan zen. Frantziako *Annales* aldizkaritik, XVII. gizaldiko prezioen jaitsiera XVI. mende amaierako krisi malthustarraren txanponaren beste aldea bezala ulertu izan zen, XVII. mendeko populazioaren beherakadaren ondorioz, baliabideak soberan egongo baitziren<sup>50</sup>.

Gaur egunean ordea, eremu akademikoan bestelako arrazoiketak dira nagusi. Hornigaien krisiak garrantzitsuak izan arren, azken aldiko ikerketen arabera, mota horretako arazoak ez ziren epe luzeko joera demografikoak azaltzeko gai. Hala, azken hamarkadetan, gizarte egituren kanpoko faktoreak azpimarratu izan ohi dira eta aldaketa klimatikoaren eta

---

<sup>48</sup> E. J. Hamilton, “The Decline of Spain”, in *The Economic History Review*, 8. alea, zbk., 2, 1938, 168-170 orr.

<sup>49</sup> J. A. Schumpeter, *Kapitalismoa, Sozialismoa eta Demokrazia*, Klasikoak, 2002, 81-87 orr.

<sup>50</sup> E. Le Roy Ladurie, *The Peasants of Languedoc*, Chicago, University of Illinois Press, 1974, 51-53 orr.

horren eragin globalaren inguruko begirada historikoek garrantzia handia lortu dute<sup>51</sup>. Ikerketa hauen harira, frogatu da nola Izotz Aro Txikia izeneko fenomenoaren baitan, Aro Berrian zehar mundu osoko edo, behintzat, eskualde askotako temperaturek beherakada jarraitu bat jasan zutela, hondamendi natural ugariarekin batera. Hotzaldi orokortu horren zergatiak nahasiak izan arren oraindik, Aro Berriko tenperatura eta klima latzenak XVII. mendean zehar kokatu ziren, fenomeno horrek krisiarekin izan zezakeen harremana iradokiz. Izotz Aro Txikia deituriko fenomeno beraz, krisi orokor nozioaren aliatu bilakatu da azkenaldian. Parker ikerlariaren hitzak erabiliz: “no convincing account of the General Crisis can now ignore the impact of the unique climatic conditions that prevailed”<sup>52</sup>. XVII. mendeko krisiaren azterketan Izotz Aro Txikia delakoa saihestu ezinezko aldagai bat bilakatu baita nahiz eta errebolta edota bestelako noziokin lez, klimaren eta krisiaren arteko erlazioa kausazkoa baino korrelazio erakoa dela azpimarratu ohi den.

Prezioen, populazioaren eta ekoizpenaren inguruko datuek, XVII. mendeko lehen erdialdea ezaugarritzeko lan esparru amankomun bat ezarri zuten heinean, iraganeko zenbait ideia baieztatu, eta, epe horretan atzeraldi orokor bat jazo zela adierazi zen. Atzeraldi orokor hori ordea, berdindu zitezkeen krisi orokor batekin? Immanuel Wallersteinen erantzuna ezezkoa zen. Bere aburuz, XVI. eta XVII. mendeko ekonomiaren bira ziklikoak ezin zitezkeen krisi orokortzat ulertu, A aldia eta B aldia deiturikoak bereizten bazituen ere, XVI. mendeko kapitalismoaren sorrera mugarri izanik, XVII. mendeko gertakizunen jarraikortasuna azpimarratu baitzuen<sup>53</sup>. Frederic E. Wakemanen esanetan ordea, XVII. mendeko atzeraldia krisi global baten sinonimo izan zen, eta Txinako Ming dinastiaren gainbehera ulertezina zen Europako zilar trukearen gainbehera edota Izotz Aro Txikia azalpen bateratu batean uztartu gabe<sup>54</sup>.

---

<sup>51</sup> J. de Vries, “The Crisis of the Seventeenth Century: The Little Ice Age and the Mystery of the ‘Great divergence’”, in *Journal of Interdisciplinary History*, 44. alea, 3. zbk., 2014, 372-374 orr. Ildo horretan kokatu beharko genuke, orobat, eta besteak beste, berriki argitaratutako P. Blom-en *Nature’s Mutinity. How the Little Ice Age of the Long Seventeenth Century Transformed the West and Shaped the Present*, Londres, W.W. Norton & Company, 2019, egungo krisi klimatikoarekiko loturak azpimarratzen dituen, gainera.

<sup>52</sup> G. Parker, “Crisis and Catastrophe; The Global Crisis of the Seventeenth Century Reconsidered”, in *American Historical Review*, 113. alea, 4. zbk., 2008, 1077 orr.

<sup>53</sup> I. Wallerstein, *El moderno sistema mundial. La agricultura capitalista y los orígenes de la economía-mundo europea en el siglo XVI*, Madril, Siglo Veintiuno Editores, 1979, 490-502 orr.

<sup>54</sup> F. E. Wakeman, “China and the Seventeenth-Century Crisis”, in *Late Imperial China*, 7. alea, 1. zbk., 1986, 22 orr.

Krisi ekonomikoaren ideia feudalismoaren eta kapitalismoaren arteko trantsizioaren interpretazio marxistaren barnean sortu zen arren, gaur egun, mota horretako interpretazioek arazo asko dituzte beraien zutarrak mantentzeko. Alde batetik, marxismoaren materialismo historikoan fedea galdu, eta, Britainiar Industria Iraultza, ekonomia modernorako bide bakartzat hartzen zenaren ideia lurrundu den heinean, XVII. mendeko gertakizunek garrantzia galdu dute. Beste aldetik, Kenneth Pomeranzek eta bestelakoek, Europaren “Great Divergence” erabakigarria XIX. mendean kokatu izanagatik, ustez XVII. mendeko Ingalaterrako aldaketek izan zuten izaera iraultzaile eta bereizgarria lausotu da<sup>55</sup>.

Krisiaren interpretazio marxistaren herdoiltzea nabaria izan arren, XVII. gizaldiko krisi ekonomikoaren izaera ezaugarritze aldera, Hobsbawmen 1954ko bi artikuluak argigarriak izan ziren oso historialari ez marxista askorentzat. Bi izan ziren krisiaren inguruko problematika argitzeko historialari marxistak eginiko ekarpenak. Alde batetik, krisiak berak egoeraren berreskupenerako konponbideak sortu zituela, etorkizuneko hazkunde eredu berriaren oinarriak ezarriz. Eta, bestetik, konponbide horiek tokian tokiko ekonomietan oso bestelako gorpuzkerak bereganatu zituztela<sup>56</sup>.

XVII. mendearen lehen erdialdea aldaketa ekonomiko sakoneko garaia izan zen Europa osoan zehar. Garai horretako gainbeheraren paradigma Monarkia Hispanikoa izan da urte askoan zehar. Kontakizun kanonikoaren arabera, penintsulako merkataritza balantza desorekatua eta lurralde zabalen mantenuak eragindako gastua, Ameriketatik iritsitako zilarraren eta Gaztelaren baliabideen xurgatzearen bitartez mantendu zen. Egoera hori ordea, XVII. mendearen lehen erdialdean aldatuko zen, metropoliaren oinarrizko sostengu zen koloniekiko merkataritzaren gainbeherarekin batera<sup>57</sup>. Orainaldiko ikerketen begiradaren bitartez, esan liteke oraindik ere metropoli gaztelarraren eta kolonien arteko XVII. mendearen lehen erdialdeko merkataritza gainbehera hori gaizki aztertu izan dela. Zehazki koloniei dagokionean, tokian tokiko jaitsiera orokortuaren ondoriozko ekonomia uzkurto zenaren ideia baztertu da, kolonietako leku askotan joera demografikoak ustezko beheranzko joerara egokitzen ez direlarik. Era berean, zilarraren ekoizpenaren ustezko gainbehera ere berrikusi da, gainbehera ez ezik leku askotan mende

---

<sup>55</sup> “...we cannot understand pre-1800 global conjunctures in terms of a Europe-centered world system; we have, instead, a polycentric world with no dominant center”: K. Pomeranz, *The Great Divergence. China, Europe, and the Making of the Modern World Economy*, Princeton, Princeton University Press, 2000, 4 orr.

<sup>56</sup> E. J. Hobsbawm, op. cit. 65-66 orr.

<sup>57</sup> E. J. Hamilton, op. cit. 172-173 orr.

horretan zehar zilar ekoizpena bere horretan mantendu edota hazi zelarik. Metropoliarekiko merkataritzaren zenbatekoa jaitsi bazen ere, hori Europako bestelako potentzien agerpenarekin eta kontrabandoaren garrantziarekin lotu ohi da gaur egun<sup>58</sup>.

Laburbilduz, XVII. mende amerikarra hazkunde garaitzat hartu da azken hamarkadetan. Ruggiero Romanoren “Coyunturas Opuestas” liburua mugarri izanik, mende horretan koloniek egituraketa autonomoago baten oinarriak ezarri zituzten, erregetzaren sarreren ehuneko handiago bat kolonietan bertan geratzearekin batera<sup>59</sup>.

Bestalde, Fernand Braudelek, XX. mendearen erdialdean ikertutakoaren harira, XVII. mendeko krisi ekonomikoaren joanean Europako ardatz ekonomiko nagusia hegoaldetik iparraldera igaro zela argudiatu zuen<sup>60</sup>. Antzemate horren orokortasuna egokia izan arren, badira azpimarratu beharreko zenbait ñabardura. Izan ere, ardatz ekonomikoen lekualdaketa huts bat baino zerbait gehiago izan zen, Mediterraneoan sakonago gauzatu arren, atzeraldi joera hori Iparraldean ere sentitu baitzen.

Era berean, ekonomialari askok zalantzak izan zituzten Aro Berriko epealdi horretako europar ekonomia batez hitz egiterako orduan, toki batzuetako atzeraldia eta beheraldia beste toki batzuetako hazkundearekin alderatu baitzen. Europako ekonomiak sare amankomun batean biltzeko joeraren aldeko ikerlari bat, honez gero suma zitekeen bezala, jada aipatutako Wallerstein izan zen. Haren ustetan, XVI. gizaldian etorkizuneko estatu-nazionalen eskutik, kapitalismo modernoaren euskarriak ezarri baitziren Europa mailan. Braudelek ordea, “mundu ekonomia” delako hori estatu lurraldeetan baino, hiri-guneetan ezarri zuen. Mediterraneoan ikergai hartuta, Aro Berriko joera ekonomikoak deszentralizazio eta zentralizazio nozioen bitartez aztertu zituen. Horrela, XVII. mendean zehar, ordura arte Mediterraneoan hiri-guneetan ezarritako ardatz ekonomikoa Iparraldeko Atlantiar hirietara pasako zatekeen. Ardatz ekonomiko nagusiaren lekualdaketa hori Genovaren gainbeheraren eta Amsterdamen loraldiaren bitartez irudikatuko zatekeen<sup>61</sup>.

---

<sup>58</sup> H. S. Klein, “¿Hubo una crisis durante el siglo XVII en la América española?”, in *El Gran Caribe en el Siglo XVII: Economía, política y sociedad* inguruko Hitzaldia, Universidad de Colombia & Universidad de Stanford, 2017, 21-22 orr. Ildo berean, mugarri garrantzitsua eta lehenetarikoa izan zen M. Morineau-ren *Incroyables gazettes et fabuleux métaux. Les retours et trésors américains d'après les gazettes hollandaises (XVI-XVIII siècles)*, Paris, Editions de la Maison des Sciences de l'Homme, 1985.

<sup>59</sup> R. Romano, *Coyunturas Opuestas. La Crisis del Siglo XVII en Europa e Hispanoamérica*, Mexiko Hiria, Fideicomiso Historia de las Américas, 1993, 13-29 orr.

<sup>60</sup> J. de Vries, “The Economic Crisis of the Seventeenth Century after Fifty Years”, op. cit. 175-176 orr.

<sup>61</sup> J. de Vries, *La economía de Europa en un periodo de crisis. 1600-1750*, Madril, Cátedra, 1979, 175 orr.

Braudelen arrazoiketa horretan, ordea, XVII. mendeak jarraikortasun kutsu handia luke, garaiko aldaketa nagusia botere ekonomikoa hiri batetik beste batera igarotzea izango zatekeen eta; hiri eredu eta egiturek inolako aldaketa kualitatiborik jasan gabe. Besteak beste, Jan de Vriesen ustetan, XVII. mendean gauzatutako hiri-sareen aldaketa hori, sakonagoa izan zen. Hala, garai horretan hiri eredu polinuklear batetik gune bakarreko urbanizazio eredurako trantsizioa sakondu zen Europako ekonomia bere osotasunean<sup>62</sup>.

Izan ere, populazioaren eta urbanizazioaren ikuspuntutik, XVII. mendearen lehen erdialdean gorabehera handirik gabeko epe luzeko joeretan aldaketa bortitzak nabari zitezkeen. Biztanleriari dagokionean, XVI. eta XVII. mendeak bere osotasunean hartuta, aldaketa sakon bakarra XVII.aren lehen erdialdean jazo zen, garai horretan, Europa ipar-mendebaldeko populazioa Mediterraneo eremuaren bat biren izatetik bi heren izatera iritsi baitzen. Urbanizazioari dagokionean ere, epe luzeko joeretan aldaketa sakonak XVII. mendearen lehen erdialdean pilatu ziren, eta, norabide berean, Ipar-Mendebaldeko hiriguneen sarea Mediterraneo eremuaren %60 izatetik, %112 izatera igaro zen. Europa ipar-mendebaldeko eremu zehatz horretako hazkundera hazkunde inertzian bildutako hirien populazioaren pilaketan oinarritu zen nagusiki. Berrero ere, de Vriesen dozena bat hitz, norberak jarraian uztartutako hamaika azalpen baino argiagoak dira: “No fifty-year period in the early modern era ever experienced so dramatic a restructuring of urban networks”<sup>63</sup>.

Hiri-sare berri horien ondorioen inguruan, 1950eko hamarkadako krisiaren lehen eztabaidaren garai berean, bi ikerketa norabidek XVII. mendea ikerketa jardunen erdigune bilakatu zuten. Alde batetik, ekonomialarien artean ekonomia kapitalista babestu edota sustatuko zuketzen instituzioen garapenarekiko interesa sortu zen. Eta, bestetik, batez ere soziologiaren adarretik, Aro Berriko gobernu aniztasunetik nazio-estatu bakarrerako homogeneizazio prozesua beste ikergai garrantzitsu bat bilakatu zen. Krisiaren eztabaidarekin zuzeneko loturarik gauzatu ez arren, kezka akademiko horien testuinguruan, XVII. mendea aztertu zen, orobat.

Hein batean, Daron Acemogluk, Simon Johnsonek eta James Robinsonek 2005ean idatzitako artikulua, bi ikerketa norabide horien garapenak biltzen ditu, eta, datu kuantitatiboz gorpuztutako hiru baieztapenetan laburbildu daiteke. Lehenik, Atlantiar

---

<sup>62</sup> Ibidem, 154-156 orr.

<sup>63</sup> J. de Vries, “The Economic Crisis of the Seventeenth Century after Fifty Years”, op. cit. 180 orr.

trukearen loraldiak inguruko hiri eta portuetako merkataritza elkarteak sendotu zituela. Bigarrenik, merkatarien interesen menpeko hiri-sareen bitartez eraketa prozesuko estatu modernoetan beraien interesak murgiltzeko gai izan zirela, nagusiki negoziaketaren bitartez. Azkenik, negoziaketa horien arrakastaren ondorioz, estatu modernoak hazkunde ekonomiko kapitalistarentzat aproposak ziren egiturak ezartzeko gai izan zirela. Funtsean, antzekotasun nabaria du hipotesi horrek 1954an Hobsbawmek plazaratutakoarekin; hots, truke metaketak instituzio eraldaketak bultzatu eta krisiaren konponbidearen oinarriak ezarri zitueneko ideiarekin<sup>64</sup>.

Holanda eta Ingalaterrako merkataritzen hazkundera, ordea, ez zen jada aipatutako merkaturen uzkurketa prozesutik kanpo geratu. 1618-1621 epealdian jazotako merkataritza geldialdia Europako beste eremuetako ekonomiek bezainbeste sentitu zuten bi lurralde horiek, baina, beste kasuetan ez bezala, uzkurketa garaian merkatuak babestu eta areagotzeko oinarriak ezartzeak ahalbidetu zuen hauen berreskurapen azkarra eta eraginkorra. Era berean, nazioarteko merkataritzari eskaini zaion arreta handia izan arren, funtsean, Europa barneko komertzio jardunak ezarri zituen etorkizuneko hazkunderaren euskarri sendoenak. Merkataritza eta teknologia berrikuntzak instituzio mailako abantailekin uztartu zituzten merkataritza elkarte nagusiak konpainia pribatuak izan ziren. Asiako eta Mundu Berriko merkataritza bereganatu bazuten ere, halakoen berrikuntzak Europa bertako joera berrien barnean sortu ziren. Garai horretan, Atlantiar merkataritzaren dibertsifikazio prozesuarekin batera, zeinetan iberiar monopolioaren aurrean Europa iparraldeko itsas potentziek merkatu nitxo ugari lortu baitzituzten, berrikuntza ugari jazo ziren merkataritza ardatz berri horien barnean; besteak beste, prezio baxuagoko produktuen ekoizpenaren, merkataritza politika eta legedi berrien, eta kapital metaketaren inguruan<sup>65</sup>.

Azkenik, urruneko merkataritza jarria hazkunde eta kapital metaketaren areagotzean izandako garrantzia ezeztatu gabe, tokian tokiko egitura soziopolitikoaren aldaketan eragin sakonagoa izan zituzten XVII. mendearen lehen erdialdean landa manufaktura eta kontsumo merkatu berrien agerpenak, antzinako hazkunde eredu ez bezalako hazkunde eredu baten euskarri edota “suntsipen sortzaile” delako bat ezarri zuten neurrian<sup>66</sup>.

---

<sup>64</sup> D. Acemoglu, S. Johnson eta J. Robinson, “The Rise of Europe: Atlantic Trade, Institutional Change and Economic Growth”, in *American Economic Review*, 95. alea, 3. zbk., 2005, 562-564 orr.

<sup>65</sup> J. de Vries, “The Economic Crisis of the Seventeenth Century after Fifty Years”, op. cit. 187-188 orr.

<sup>66</sup> J. A. Schumpeter, op. cit. 472 orr.

## 6. Azkenengo gogoetak.

Britainia Handiko historiografia marxistaren baitan sortutako krisiaren inguruko eztabaidak jardute historiografikoaren amankomuneko ezaugarri batzuen erakusle dira. Alde batetik, XVII. mendeari “krisi orokorraren” izaera emanagatik, eztabaida horiek Britainia Handitik haragoko ikerketa konparatiboak sustatu zituzten. Era berean, materialismo historikoaren trantsizio ekonomikoen zurruntasunaren eta ezinbestekotasunaren gainetik, zeinetan kapitalismoaren jatorri zehatzaren bilaketa lausotu baitzen, jada Hobsbawmek azpimarratutako zenbait elementuk garrantzia dute gaur egungo krisi berrikusian. Lanaren helburuen ildoan, funtsezkoa da ikergai historikoen bilakaera historiografikoa garaiko ezaugarri eta baldintzen arabera ulertzea.

Jada aipatutako Romano ikerlariaren esanetan: “la investigación es un laberinto y no una simple línea”<sup>67</sup>. Hurbilketa historiografiko ororen helburua ez baita ekarpen zuzenak eta okerrak bereiztea, edota gaur egunaren argitan iraganeko idazlanen baztertzea aldarrikatzea, zuzentasunaren izenean. Hurbilketa historiografiko ororen helburua ikerketak dagokien testuinguruan kokatzea da, gaur egunaren garapenetik eduki zitzaketen okerrak adieraziz, baina betiere eginiko galderak eta perspektibak bere horretan ezaugarrituz.

Funtsean, lan honen aztergaia bada beste irakaspen orokor baten isla, zeinak jardun historikoa bere osotasunean baldintzatzen baitu. Irakaspen hori denbora historikoaren ingurukoa da. Historialarien buruhauste nagusiak denbora historikoaren ingurukoak izan ohi dira, jarraikortasunaren eta hausturaren arteko betiereko dilema. Zentzu horretan, krisi nozioa malgutasun handikoa dela ikusi da, aldaketaren eta inertziaren arteko erdi bidean kokatu daiteke-eta. Mota horretako gogoeten testuinguruan, 1970eko hamarkadan hasitako ikerketa linguistikoek funtsezko elementu bat azaleratu zuten, izendapen historikoen mugikortasuna, hain zuzen ere. Iragan historikoa ezaugarritzeko erabiltzen diren nozioek, bere erabileraren jatorrian testuinguru kultural zehatzetan sortu, eta, denboran zehar esanahia aldatu izan baitute.

Izendapen analitikoaren berrikuspen sakon horren gerizpean, “iraultza”, “ilustrazioa” edota “berpizkundea” bezalako nozioek garrantzia galdu dute, edo behintzat, berrikuspen saio bizien helburu izan dira. Hein batean, mota horretako izendapenek historia denbora multzo bereiztu eta monolitikoaren artean banatzea eragiten dutelako. Krisi nozioak, ordea,

---

<sup>67</sup> A. Casals, op. cit. 53 orr.



esan bezala, berrikuspen jardute horien ostean ere bere erabilgarritasuna egonkortzea lortu du, eta, kontakizun historikoaren baitan, nolabaiteko egokitasunez dirau.

Ildo berean, XVII. mendeko krisiaren izaera orokorrak behin betiko erasoak jaso ditu, batez ere tokian tokiko ikerketa enpirikoen bitartez, Angel Casalsek eginiko gogoeten harira, “krisi orokorraren” ideiak eduki enpirikoak baino, teorikoak izan baitzituen euskarri oro har, ikerketa esparru bat zehaztuko lukeen instantzia amankomun bat<sup>68</sup>. Hala ere, XVII. mendeko krisi ekonomikoari dagokionean, izaera orokorraren ideiak inoiz baino onarpen handiagoa duela esan daiteke, nahiz eta 1950eko hamarkadan garatutako tesi marxistatik kanpo izan. Alde batetik, Izotz Aro Txikiaren oinarritik, garaiko krisiaren izaera orokorra baieztatu da, betiere ezinbestekotasunak baztertuta, eta tokian tokiko desberdintasunak eta ñabardurak ezeztatu gabe. Ez da harritzekoa eta, egungo krisi klimatikoaren testuinguruan, iraganeko beste krisi horren alderdi klimatikoak ere azpimarratzea. Eta, bestetik, garaiko hiri-sareen eta merkataritzaren gorabeherak aztertuz, XVII. mendeko krisia eraldaketa eta berregituraketa ekonomiko sakonen oinarriak ezarri zitueneko garaitzat ulertu da. Hori dela eta, azken hamarkadetako ikerketa ekonomikoen testuinguruan, XVII. mendeko krisiak badu oraindik ere zeresana. XX. mendearen bigarren erdialdetik krisiaren inguruko eztabaidetan parte hartu zuen ikerlari baten esanetan: “Yet in a relatively brief period, a concentration of economic power in a limited area and pressure that it placed on the rest of European economic life. These events were real and broadly consequential, they deserve a name”<sup>69</sup>.

Beraz, historia ekonomikoaren arlora begira, “krisi” nozioak badu oraindik erabilgarritasunik, eta XVII. mendeko krisia, ñabardurak ñabardura, garaiko errealitate ekonomiko anitzak biltzeko izendapen erabilgarria da oso.

---

<sup>68</sup> R. Romano, *Coyunturas Opuestas*, op. cit. 145 orr.

<sup>69</sup> J. de Vries, “The economic crisis of the seventeenth century after Fifty Years”, op. cit. 194 orr.

## **Bibliografía.**

Acemoglu, Daron. Johnson, Simon. eta Robinson James. “The Rise of Europe: Atlantic Trade, Institutional Change and Economic Growth”, in *American Economic Review*, 95. alea, 3. zbk., 2005, 546- 579 orr.

Benigno, Francesco. *Espejos de la Revolución*, Bartzelona, Crítica, 2000.

Blom, Philipp. *Nature´s Mutinity. How the Little Ice Age of the Seventeenth Century Transformed the West and Shaped the Present*, Londres, W. W. Norton & Company, 2019.

Casals, Ángel. “La crisis del siglo XVII: ¿de imprescindible a inexistente?”, in *Vinculos de Historia*, 2. zbk., 2013, 51-65 orr.

De Vries, Jan. “The economic crisis of the seventeenth century after Fifty Years”, in *The Journal of Interdisciplinary History*, 40.alea, 2. zbk., 2009, 151-194 orr.

De Vries, Jan. *La economía de Europa en un periodo de crisis. 1600-1750*, Madril, Cátedra, 1979.

De Vries, Jan. “The Crisis of the Seventeenth Century: The Little Ice Age and the Mistery of the Great Divergence”, in *Journal of Interdisciplinary History*, 44.alea, 3. zbk., 2014, 369-377 orr.

Dobb, Maurice. *Estudios sobre el desarrollo del capitalismo*, Madril, Siglo Veintiuno Editores, 1984.

Elliot, John. *Europa y el mundo de ultramar (1500-1800)*, Madril, Editorial Taurus, 2010.

Fernández, Albaladejo, Pablo. “Veinticinco años de debate sobre la crisis del siglo XVII”, in Aston, Trevor. koord. *Crisis en Europa 1560-1660*, Madril, Alianza Editorial, 1983, 368-386 orr.

Gil, Pujol, Xavier. *Tiempo de política. Perspectivas historiográficas sobre la Europa moderna*, Bartzelona, Universidad de Barcelona, 2006.

Hamilton, Earl-Jefferson. “The Decline of Spain”, in *The Economic History Review*, 8. alea, 2. zbk., 1938, 168-179 orr.

Hazard, Paul. *La crisis de la conciencia europea*, Madril, Alianza Editorial, 1988.

Hill, Christopher. "Introducción", in Aston, Trevor. koord., *Crisis en Europa. 1560-1660*, Madril, Alianza Editorial, 1983, 11-14 orr.

Hill, Christopher. *The Century of Revolution. 1603-1714*, Londres, Routledge Classics, 2002.

Hilton, Rodney. arg. *La transición del feudalismo al capitalismo*, Bartzelona, Editorial Crítica, 1982.

Hobsbawm, Eric. John. "La crisis del siglo XVII", in Aston, Trevor. koord. *Crisis en Europa. 1560-1660*, Madril, Alianza Editorial, 1983, 15-72 orr.

Imízcoz, Jose. María. "Las redes sociales de las élites. Conceptos, fuentes y aplicaciones", in Soria, Enrique. Bravo, Juan. eta Delgado, Jose. Miguel. arg. *Las élites en la época moderna: la Monarquía Hispánica*, 1. alea, Nuevas Perspectivas, Universidad de Córdoba, 2009, 77-112 orr.

Klein, Herbert. "¿Hubo una crisis durante el siglo XVII en las América española?", in *El Gran Caribe en el siglo XVII: Economía, política y sociedad* konferentzia zikloa, 2017ko azaroaren 15-17, <[http://www.unmsm.edu.pe/eventos/adjuntos/Klein\\_¿Hubo\\_una\\_crisis\\_durante\\_el\\_siglo\\_XVII\\_en\\_la\\_América\\_Española\\_01-2018.pdf](http://www.unmsm.edu.pe/eventos/adjuntos/Klein_¿Hubo_una_crisis_durante_el_siglo_XVII_en_la_América_Española_01-2018.pdf)>, [azkenekoz 2020-VI-1ean kontsultatua].

Le Roy, Ladurie, Emmanuel. *The Peasants of Languedoc*, Chicago, University of Illinois Press, 1974. Incroyables gazettes et fabuleux métaux. Les retours et trésors américains d'après les gazettes hollandaises (XVI-XVIII siècles)

Lublinskaya, Alexandra. Dmitrievna. *French Absolutism: the crucial phase, 1620-1629*, New York, Cambridge University Press, 1968.

Morineau, Michel. *Incroyables gazettes et fabuleux métaux. Les retours et trésors américains d'après les gazettes hollandaises (XVI-XVIII siècles)*, Paris, Maison des Sciences de l'Homme, 1985.

Munck, Thomas. *La Europa del siglo XVII. 1598-1700*, Madril, Ediciones Akal, 1994.

Parker, Geoffrey. "Crisis and Catastrophe: The Global Crisis of the Seventeenth Century Reconsidered", in *American Historical Review*, 113. alea, 4. zbk., 2008, 1053-1079 orr.

- Pomeranz, Kenneth. *The Great Divergence. China, Europe and the Making of the Modern World Economy*, Princeton, Princeton University Press, 2000.
- Rabb, Theodore. *The struggle for stability in Early Modern Europe*, New York, Oxford University Press, 1975.
- Romano, Ruggiero. *Coyunturas Opuestas: La Crisis del Siglo XVII en Europa e Hispanoamérica*, Mexiko Hiria, Fideicomiso Historia de las Américas, 1993.
- Romano, Ruggiero. “Encore de la crise de 1619-1622”, in *Annales ESC*, 19. alea, 1964, 31-37 orr.
- Russell, Conrad. *The Unrevolutionary England. 1603-1642*, Londres, The Hambledon Press, 1990.
- Schöffler, Ivo. “Did Holland’s Golden Age Coincide with a Period of Crisis?”, in Parker, Geoffrey eta Smith, Lesley. arg. *The General Crisis of the Seventeenth Century*, Londres, Routledge & Kegan Paul, 1985, 83-110 orr.
- Schumpeter, Joseph. Alois. *Kapitalismoa, Sozialismoa eta Demokrazia*, Klasikoak, 2002.
- Shank, John. Benneth. “Crisis: a useful category of Post-Social Scientific Historical Analysis?”, in *American Historical Review*, 113. alea, 4. zbk., 2008, 1090-1099 orr.
- Starn, Randolph. “Historians and crisis”, in *Past and Present*, 52. alea, 1. zbk., 1971, 3-22 orr.
- Steensgaard, Niels. “The Seventeenth-century Crisis”, in Parker, Geoffrey. eta Smith, Lesley. arg. *The General Crisis of the Seventeenth Century*, Londres, Routledge & Kegan Paul, 1985, 26-57 orr.
- Sweezy, Paul. “Crítica”, in Hilton, Rodney. arg. *La transición del feudalismo al capitalismo*, Bartzelona, Editorial Crítica, 1977, 43-78 orr.
- Trevor-Roper, Hugh. “La crisis general del siglo XVII”, in Aston, Trevor. koord., *Crisis en Europa. 1560-1660*, Madril, Alianza Editorial, 1983, 72-110 orr.
- Wakeman, Frederic. “China and the Seventeenth-Century Crisis”, in *Late Imperial China*, 7. alea, 1. zbk., 1986, 1-26 orr.

Wallerstein, Immanuel. *El moderno sistema mundial. La agricultura capitalista y los orígenes de la economía-mundo europea en el siglo XVI*, Madril, Siglo Veintiuno Editores, 1979.